

UEU-REN BALORAZIOA. Nafarroako Gobernuak diru laguntza kentzeak eragina izan du ekonomia balantzean

Ikastaro zein partaide kopuruan, «mailari eustea» lortu duela esan du UEUK

«Euskarak 25 urteotan sekulako urratsak egin ditu», dio Isasik



JOKE LACALLE
Kepa Dieguez, Xabier Isasi eta Ane Sarasua atzoko prentsaurrekoan.

Orreaga Aranburu | IRUÑEA

«Urteak joan urteak etorri, udako ikastaldiak antolatzeko aha- legin handiak egin behar diren arren, bai ikastaro kopuruan eta bai partaidetzan mailari eustea» lortu dutela adierazi zuen, atzo, UEUKo zuzendari Xabier Isasik, udako ikastaroen balorazioa egiteko emandako prentsaurrekoan.

Aurten, UEUK, Iruñean 25 urte eman dituela-eta balorazio berezia egin zuen: «Euskarak, 25 urte hauetan sekulako urratsak egin ditu. Euskaraz jakintza alor anitzetan egin dira lanak, eta horretan UEUren ekarpena garrantzitsua izan da». Bestalde, Udako Euskal Unibertsitatearena hezkuntza alorreko zerbitzu publikoa dela erran zuen, eta «baliabide publikoan ardurak dauzkateni» hala jakinarazi zien. Hori dela-eta, datozen urteei begira Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udalaren babesa berreskuratzen ahaleginduko direla esan zuen.

Antolakuntza Akademikoko arduradun Kepa Dieguezek hainbat datu azpimarratu zituen partaidetzari dagokionean. Miarritzen 152 lagunek parte hartu zuten eta *Globalizazioaren paradoxa* izan zen jende gehien bildu zuen ikastaroa. Iruñeari dagokionean, 550 ikasle eta irakasle izan dira, eta eskari handiena izan duten ikastaroak, lehenengo astean, *Babeguneen kontserbazioa* eta, bigarrenean, *Euskararen geroa pausoz pauso gizarte alorretan*.

DATUA

Mailari eutsiz

Parte-hartzea. Guztira 702 lagunek hartu dute parte UEUKo udako ikastaroetan. Miarritzeko ikastaroetan 152 ikasle eta irakasle izan ziren eta Iruñean 550. Beherakada demografikoa izan arren, eta unibertsitate gero eta ikasle gutxiago joan arren, UEUK kopuruari eutsi dio.

Sail desberdinetan adituak eta pertsonaia ezagunak ere izandira UEUn, Kepa Dieguezek erran zuenez: Pello Zabala, Joxeina Etxeberria, Antton Olariaga, Juan Mari Arzak...

Bestalde, saio osagarrien partaidetza eta kalitatea azpimarratu zituen.

Bi milioiko defizita

UEUKo idazkari nagusi Ane Sarasuak behin-behineko ekonomia balantzea egin zuen. Diru sarrerak eta irteerak alderatuta, 2.095.950 pezetako defizita (83.838 libera) izan dutela azaldu zuen.

Ildo beretik, Sarasuak adierazi zuenez, Nafarroako Gobernuak azken hamar urteetan emandako diru laguntza kentzeak eragina izango du, bai behin-behineko emaitzetan baita azken emaitzetan ere. Diru laguntza hori aldakorra izan den arren hiru milioi pezeta ingurukoa (120.000 libera) zela argitu zuen.

O.A. | IRUÑEA

Udan eta unibertsitate-ra? Galdetu lezake Udako Euskal Unibertsitatean sekula egon ez den norbaitek. Bada, bertan izandako ikasle eta irakasleen erantzuna baiezko borobila da.

Izan ere, oso esperientzia aberasgarria dela diote eta, behin etorri gero, jendeak errepikatu egiten duela. Larraonan aurkitutako ikasle gehienek datorren urtean bueltatzeko asmoa azaldu dute. Jakina, bestelako unibertsitateetan irakaslearen «txapak» entzun eta kito, normalean ez dago besterik. UEUn berriz, eztabaidak, irteerak... egiten dituzte.

Fisika ikasle talde bat, hain zuzen, planetariotik bueltan harapatu dugu, eta ikastaroak oso aberasgarriak izan direla erran dute. Giroa ere oso ona izan dela azpimarratu zuten, «nahiz eta lehenengo astean eta beste urte batzuetan jende gehiago egon».

Kafetegian, berriz, psikologia ikasle batzuk aurkitu ditugu eta

haiek ere pozik azaldu dira ikastaroen emaitzengatik.

Ikastaroen gain, hainbat saio osagarri ere antolatu dituzte. Psikologiako Maritxuk eta Gaizkak oreka TXen kontzertua azpimarratu dute. Maritxuren hitzetan, «izugarria eta hunkigarria» izan zen emanaldia. Gaizkarentzat ere hoberena emanaldi hori izan zen. Hala ere «kexa» txiki bat izan du saio osagarri dagokionez: «Nik ez nituzke denak hemen barruan egingo, olinpiadak-eta kalera aterako nituzke».

Gauza txarrei buruz ere galdetu diegu, eta Maritxu Jimenez Psikologia Saileko buruak lo falta dela-eta nekatuta ibili dela erran du, berandu oheratu eta goiz jaikitzen ibili direlako. Hala ere, seguruenik, beste

Datorren urtean berriz!

ERREPIKATZEKO GOGOZ. Ikasle eta irakasleak oso gustura ibili dira bai eskoletan eta bai ikasgelatik at



JOKE LACALLE
Datorren udan bueltatzeko gogoaz azaldu dute ikasleek.

batzuentzat berandu oheratze hori ona izango zen. Izan ere, askok azpimarratu dutena ikastaroetatik at egondako giroa izan da.

Sailetako arduradunak ere pozik

Maritxu Jimenez Psikologia sailburuak balorazio oso positiboa egin zuen, bai ikastaroei dagokionean eta bai bestelako ekitaldiei dagokionean ere. «Batez ere, Oreka TXen kontzertua» azpimarratu du.

Antropologia saileko buru Aitzpea Leizaolarentzat «urte osoko lanak bere fruitua eman du. Gainera Ikastaroak oso maila politekoak izan dira eta kanpoko aditu asko etorri dira».

Fisika Saileko arduraduna ere pozik agertu da, baina beste batzuetan baino giro gutxiago egon dela uste du; izan ere, «Nafarroako Gobernuak diru laguntza kendu duenez eta Iturramako egoitza ukatu digutenez egoitza garestitu egin da eta jende askok kanpoan bilatu du lotarako tokia».